



**Departamento para la
Fiscalidad y las Finanzas**

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia

**Dirección General de
Hacienda**

Tributu Lokaleko Kudeaketa Zerbitzua
Servicio de Tributos Locales

**OIARTZUNGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN
LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN
ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Udalerriaren hirigintza garapenaren ondorioz, agian kale berriak sortu edo lehengo kaleetan atari zenbaki gehiago atera dira. Hori dela eta, beharrezkoa da haiei dagokien merkataritzako azpizona esleitzea.

Era berean, balio katastralen eta merkatuko balioen arteko desfasea antzeman da udalerriko hainbat zonatan. Hori horrela, udalerriko zona edota azpizona batzuetan balio eragingarriak berrikusi behar dira.

Horregatik guztiagatik, Oiartzungo lurzorua eta ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.



**Departamento para la
Fiscalidad y las Finanzas**

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia

**Dirección General de
Hacienda**

Tributu Lokaleko Kudeaketa Zerbitzua
Servicio de Tributos Locales

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Oiartzungo Antolaketa Arauen aldaketa “Lintzirin Gaina” eremuan (2002ko uztailaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartuta)**
- **Oiartzungo Antolaketa Arauen aldaketa Altzibarko 8e sektorean (2003ko martxoaren 03an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartuta)**

2.- Beste aldetik Udalak aurkeztutako alegazioetan aipatzen du aktas bat dagoela Ponentzian, egun 321 zona katastralen kokatuta dagoen 57 eremua geldiarazita geratu baitzen 1991eko Oiartzungo Ordezko Arauen onesteko ebazpenean

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hirilur lurraren eta 221 eta 222 zona katastralen mugak aldatzen dira, eta etxebizitzarako 603 eta industriarako 855 zonak sortzen dira.

2.- 321 zonaren mugak aldatzen dira, “57 eremua” ateraz, eta 604 zona katastral berria sortzen da “57 eremua” sartuz.



**Departamento para la
Fiscalidad y las Finanzas**

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia

**Dirección General de
Hacienda**

Tributu Lokaleko Kudeaketa Zerbitzua
Servicio de Tributos Locales

3.- Sortutako zonek honako balioak izango dituzte:

Zona Hirigintz. klasif (EK) Eraik Kos. (BEE) Balio Erag. (MP) Apark Moduloa.

603	HIRITARGAIA	510,86 €	526,19 €	10.818,22 €
604	HIRITARGAIA	540,91 €	830,77 €	10.818,22 €

Zona Hirigintz. klasif (BEI) Balio Erag (MP) Apark Moduloa

855	HIRITARGAIA	225,38 €	6.611,13 €
-----	-------------	----------	------------

3.- 603 eta 604 etxebizitzarako zonetan dauden kaleek edo kale tarteeek N azpizona izango dute.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.